

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2020 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Onestea Maider Murillo Treviño andrea Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren konfiantzazko idazkariaren behin-behineko lanpostutik kentzea, lanpostuaren titularra, Jaione Sáenz del Burgo Quintana, lanpostura itzultzearen ondorioz

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Maider Murillo Treviño andrea, behin-behineko langileek betetzekoa den Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren idazkari lanpostutik (kodea: 1322) kentzea, lanpostuaren titularra, Jaione Sáenz del Burgo Quintana, berriro lanean hasteagatik.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2020ko otsailaren 3tik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko Foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA